



MURRIZKETA LABORAL ETA SOZIAL BERRIEI EZ!

Oraindik uztailaren 13ko dekretuaren bidez Madrileko Gobernuak ezarritako neurrien gorabeherak aztertzen ari garenean (ez-ohiko soldata desagertzea, baimenak, baje osagarria, BEZaren igotzea, langabeziako saria murriztea...), orain dela hiru urtetik hona pairatzen dugun murrizketa politikaren kontra **irailaren 26an** deitutako greba orokorraren biharamunean, Ministro-Kontseiluak neurri murrizkor berri sorta bat erabaki zuen:

1.- 2013ko aurrekontu proiektua, besteen artean neurri hauekin:

- Langile publikoen (eta seguruen itunpeko zentroen langileen) oraingo soldatak (2010eko murrizketetatik geratu zirenak) izoztea. Murrizketak hasi zirenetik, gure erosteko ahalmenaren %10-11 bitartean galdu dugu dagoeneko. Gabonetako soldata berezia kobratzen ez badugu beste 6 puntu baino gehiagoko galera izango dugu aurten, eta 2013ko bukaerarako egoera benetan kazkarra izan daiteke. (2013ko KPIa gehitu beharko zaio honi).
- EPEak erabat geldiaraztea (hezkuntza, erretiratu direnen %10 izan ezik, gehienez)
- Kontratazioarako laguntzak desagertzea, agindutako aitatasun baimenaren luzapena (13tik 20 egunera) atzeratzea eta langabeziako prestazia %6,3 murriztea (3.000 milioi gutxiago)
- EREtan, kaleratze kasuan langabezia berritzea ezabatzea (gaur, 180 egun babesten dira)
- pentsioak %1 igotzen dira, KPIrekin gaurkotzea ziurtatu barik.
- Estatuko gastuaren murrizten da azpiegituretan: EAE-n (%-33) eta Nafarroan (%-68)
- Gainera: pentsioak ordaintzeko, SS-eko erreserbako fondoa lehenengo aldiz erabiliko dute; zorra ordaintzeak aurrekontuaren herena jaten du (40.000 milioi); Estatuak bankaren faktura bereganatzen du, zor pribatua publiko bihurtzen...

2.- Zerga berriak ezarri dituzte: loterian, etxebizitza erosteagatik desgrabazioa kentzea...

3.- Hitzarmen Kolektiboen Kontsulta-Batzordea arautzea. Erakunde honek erabakiko du hitzarmenen "ezbetetzeak" aplikatzean desadostasuna dagoenean. Zorionez, kolaborazio hitzarmenak sinatu arte, ez du atribuziorik EAE-n eta Nafarroan.

4.- Sei hilabeteko epean 40 lege proiektu sorta aurkezteko konpromisoa:

- Pentsioen jasangarritasun faktorea arautzea, murrizketa gehiago sartzen.
- Mutuen erreforma, duten osasunerako eskubidearen kontrako boterea indartzeko.
- Erkidego Autonomoak fiskalizatzeko erakunde bat sortzea.
- Banku Txarra deritzona sortzea: Bankaren galerak sozializatzea.
- Lan erreforma: aprendizgo kontratua garatzea eta lanbide heziketa duala.
- Enplegu zerbitzu publikoen pribatizazio partziala.
- Zerbitzu publikoak "doitzea": osasuna, hezkuntza, dependentzia, administrazioa...
- Telekomunikazioak, energia eta garraioa "liberalizatzeko" neurriak.

Neurri larriak dira eta zerbitzu sozialak, lan eskubideak eta hiritarren bizimodua hondatzeko ezarri dituzte. Ekonomia berpizteko eraginkortasunik eza (eta hor daude langabeziaren datu berriak) erakutsi duten politika publikoak aldatzea inolaz ere ez da planteatzen. Ezta *ongizate-estatuaren pribilegioak* deritzena defendatzea ere. Alternatibak bilatu ordez, gastu soziala gutxitu eta fondo publikoetatik kriston dirutza bideratzen dute interes pribatuetara eta lehentasun sozialik ez duten gastuetara (AHT).

STEE-EILASek berriro exijitzen du neurri hauek indargabetzea eta, aldi berean, deitzen die bertako erakunde guztiei Euskal Herrian ez aplikatzeko konpromisoa har dezaten. Berriro ere mobilizazioak politika antisozial hauek geldiarazteko duen garrantzia gogorarazi nahi dugu.